



Batikano'tik.

Aita Santua'ren Gabon itzaldia. Urtero lez, kardenal-Batzaren Gabon-zorion-agurari erantzuteko oi daben itzaldia Aita Santuak egin dau. Kardenalari eskefak emon ondoren, lurbira gustian zifnestea zabaltzen diarden gustiei zorion-agur biotzeko a baldu eutsen; eta kistar gustiei iragari ta Yaunari eskatu, gizarteko bakea, esku-zabala, alkar-laguntza, lana ta bizitzako ugaritasuna. Gero Yesu-Kristo'k gizona gaizkatzearen Nekaldi gogofa yasan eban 19'gn gizaldi edo, eunkia eleiztarren eretziz, datofen urtean betetan delako, «Yubileo» urtea iragari eban, gizadiaren gaizkatzea ospatzeko.

Yakidiz, urte ori dan ala ez ziur ez dakigu, baña, yakitunen eretziz Yesu Kristo'k Nekaldia igaro eban 19'gn gizaldia 1930'n ala 1932'n urtean betetan da. Urte onein aldez dira eretxi sendoenak. Urtea ziur ez yakiteak, Yesu Kristo'k gu gaizkatu ginduzala diñoan egiari kalterik ez dautso egiten, eta bere odol edefaz gaizkatu ginduzen gustioi andikiro ospatzeko diñosku. Gaur eunkiak ospatzea «modan» dago, eta saritan eztabaidan dagozan gai eta gizonetzaz be bai. Beraz, zio geyagoz Kristo'ren Nekaldi-eunkia ospatu bear dogu, gustion onuraz betekoa izango da-ta. Urte Deun au 1933'ko Yoñala-2'n asi ta 1934'ko Yoñala-2'n amaituko da; eta zifnezgeri aldi oneitan onura iraukoña izan dayen, zer egin bear dan yakiteko arauak emongo dira. Itzaldia amaitzean lurbira gustia onetsi eban eta pozik bere onespena artu gendun. Itzaldia «radioz» ludi justira zabaldu zan eta ondoren Ingalanderaz, panteraz, espanyeraz eta polakeraz iragari eban.

«Nuovi Lincei» yakintza bazkunaren ikastaroa.

Aita Santua Burua ebalat yakintza-bazkun onek 330'gn ikastaroa ila onen 18'n asi eban, IX'n Pio'k bariztau ebanetik 86'gna. Gianfranceschi aba yakintzu ta lendakariak itzaldi bat irakuri eban igaro dan urtean Bazkunak egin dituan lanen bari emoteko, eta Aita Santua'ren lanen gorralben andiak egin zituan, eta bazkide gustien izenean eskar beroak emon be bai. Bazkideen gora berak aitatu ondoren, iru idazti eder eskiñi eutsozan, igaro dan urtean bazkideak argitaldu dituen yakidi-lan eta «Nuntius Rad'ophonius izenaz, irafizkin (radio) bidez ludi gustian zabaldu diranakaz. Gustiak yakidi-gai sakonak dira, eta iru idaztien artean 1.600 ingoskosotuten ditue. Ia gai gustiak, orain arte azaldu ez diranak.

Aita Santuak itzaldi edefaz erantzun eulson, Bere eskar ona, poza ta auferantzerako euken itzaropenatzaz. Bernardo deunagaz esan eutsen, osotasuna baño, osotasunera eltzeke alegi-

ñak bearekoago zirala, osotasunera alegiñaren bitartez bakarik eltzen zala adirazi. Biotzez itzaropen onegaz Onespena emon eutsen. Eta ondiño be Eleiza yakidiaren aizkide ez dala esaten asartuko diranak izango ete dira...?

Aita Santua bakezale.

Bolibia ta Paraguay'k darabilen gudan Aita Santua'k Gabon gabaz asita ogetalau orduko bake unea yaritxi dau. Ordeleraren bidez eskaria egin eta lateri areitako agintariak ontzat emon dabe. Aita Santua'k Bere eskar ona agertu dautse, eta poz-aitakoña agertu eta otot egiten dabela, bake iraukoñaren asiera izan daiten, Bakezko Bakaldun Yesu Kristo'ri eskatuaz. Izan be, egiz bakezale nor da Aita Santua baño geyago?

Gaionak eta irafizkiña (radio).

Europa gustian, Gabon eguna pozik andienagaz ospatu dala ikusteak biotza benetan poztu dausku. Rumania, Polonia, Austria, Italia, Alemania, Ingalanda, Noruega, Txekoslovakia, Parantze eta abar laterietako irafizkiñak alkarren leyan ibili dira, Gabon abesti eta gaberdiko Mesa abestuak alde gustietara zabaltzen. Belen'en gure maitasunez yayo zan Yesu's'en aintzaz abesten ao batez lateriak ikustean, emengo oztasunaz go mutatzten gara, eta gizabidetik aldendu gura gaituela oartzeak biotza benetan samintzen dausku. Lateri geyenok irafizkiñei laguntzen dautse, eta nonbait ondo eretxi dautse, Yesu's'en aintzaz al daben gustia egiteari. Emen ofetara noz elduko ete gara!

Lovaina'ko Ikastetxe Nagusia.

Egunokaz ospatu dabe beljekar katolikoak Lovaina'ko Ikastetxe Nagusiko Teologi irakaskintzaren 500'gn urtea. 1432 IV'n Eukeni Aita Santua'k irasi eban Teoloji irakastolea. Saspri urte lenago 1425'n Martin V'enak, Ikastetxea bera irasi eban. Gustiok dakigu Lovaina'ko ikastetxe onetatik gizon yakintzu askok urten dabela, eta geure egunetan bere yakituri ta kemenez gustiak arituta itxi zituan Mer-

ziar kardenal ospetsuak eragipen andia emon eutsola Gaur ludian dagon ikastetxe katolikorik eder eta ospetsuena dala esan geinke, eta milaika ikasleak egizko yakituri ikasten dabe.

Itxastaren alde.

Itxasontzietan batera ta beste-ri ibili oi ziranak aldi baten, gogo- arasoetan laguntza barik aurkitzen ziran, eta estu-aldietan be, bein baño geyagotan laguntasun barik ilten ziran. Utsune ori betetako «Apostolatus Maris» deritxon lateri- arteko bazkun katoliko sortu zan, aspaldian lan edera egiten dabena. Bazkun orokor onek beste askori laguntzeko itxas-kai ospetsu- netan etxeak ipiñi ditu, ta edero lan egiten dabe. Bazkunok 1920'n 12 ziran eta gaur 44. Aurten Honolulu, Hong Kong, Melbourne, S. Francisco ta Stetino'n eraldu ditue. Bazkun onek bere ardurapean 15 yaupari berein-beregikoak eta beste 130 aldiz-aldizkoak ditu. Onei laguntzen dautsen prakadunak miletik gora dira. Rotterdam' go itxas-bazkun batek, bazkideai duban itxasontzian ibiltea eskiñi dautse euren araso onuratsua betetako. Gelditzen diran kayetan katolikoko eleiza bilatzeko ta «Guia» bat argitaltzeko lanean dabiliz, euren gogo- arasoetarako ezeztasunak nok aurkitu lekiezan azalduaz. Orez gañera itxastarien artean idazti onen bidez lan edera egiten dau. Boogaers yaunak, Anvers'eko Bazkun onen yaupariak bakarik, 338 idaztitegi itxas-bideztientzat eraldu ditu, eta ofetarako 12.000 idazti zuzendu be bai (1). Bingen Paul deunaren lekaideak bakarik igaro dan urtean 1.038 itxasontzi ikertu ditue eta oartu be bai Mesa entzule ta autortzeak itxastarien artean ugaritu dira'a. Lan edera benetan...!

Lanbakoak eta Aita Santua.

L'Osservatore Romano'k Aita Santua'ren aginduz lanbakoan aldez asi eban arpidea egunokaz miloi bat lirara eldu da. «Langilien gaizkatzaile» dirala diñoenen artean olangorik ez da entzuten. Eurak ondo egon ezkeror «or konpon» egiten ez dira makalak. — Aurten lanok amaitu ditugu ta Urte Bari on...! irakurle gustioi.

M.'tar G.

(1) EKIN, asteroko txiki ta apal au be asteen-asteen bialtzen dogu onetarik 14 etxetara, euron zuzendari arteko batek eskatuta. Artez.

Eleizetarako Altara, Pulpitu, Konfesonario,

baita edozetariko erti lanak afian eta zulean

Goikoetxea'tar Eroman'en lantegian

VITORIA (Gazteiz) Canciller de Ayala kalean (Anglo-Vasco geldoki-aurrean)

Gazteizko Erakusketan (1916'an) lenengo saria ta ufezko domiña.

ABADE YANTZIAK
ONDO TA MERKE

RICARDO FAURA

Gazteiz'en (Vitoria) Ortiz de Zarate'n kalia 5—1.º
Bilbo'n. Felix Beltran de Heredia'nean Jardines 7—2.º

Euskal-erriko izparrak

BIZKAYA

Elantxobe.

Polito joiakuz joiak.

Poza, poz garbi baketsua, izan dogu, efiko geyenen artian beintzat, aufera joiakuzan jai onen antza ta usaiña. Aurtengo Gabon-eguna ta bijaramona ez daukaguz beinguan aztuteko batez be

Ume abeslari pilo zoragarija.

Basefitartxu jantzita joiazan. Lora artian arnasa artzen geratutako aingerutxuak zirudijen. Zenbatek leio-etatik eta kale bafenetatik, umiari entzunaz poz-negafa iruntsi eben! Abesti eder eskon artian, abots bitarra abestu ebenak zotiniñ geyen eragin euskun. Iñuana, orduan baixen ondo, ez genduan eguno aitu. Entzun irakurle:

Erdu ordu onian
Josutxu gugana,
zeure premiñan txarío
gagozanok-gana.

Erdu zorijonian,
Zeru-lufen Jauna,
poz-pozik ipintera
iluntasun dana.

Iluntasun dana.

¡Egi galanta! Askok, putziluta dagozalako-edo, uste ez daben afen, buru-bijotz asko ilun dabiliz. Zelan, bestela artun leiz ontzat ainbat gaiztakeri, ainbat nasakeri, ainbat lotsabakokeri, ainbat nagosikeri? ¡Amaitkatxu astokeri entzuteko egunetan bizi gara!

Jan-edan eta... basatzen.

Ori dogu, asmoz eta al dabenian egitez be, gaurko jakituri ezeza. Pozik edefena, atsegintsuena, iraukoña, negar ta gofoto barik, ondorengo txar ta lotsagafi barik, benetako atsedena dakafen poza, *poz garbi, zuri, urdiña* dala diñogunori ortik, «iruntzi ta zifi» dabilzitanak poz ori ardautzan da nasakeriztan aurkitu biar dala diñoskue. Ez, ortik ez dabil, zikinduten ez dan kistafen poz garbija; ori mala asko berago dagozan aberien poza da.

Gixonak be

abesti edefakin, elizkizunak goitik erabili euskuezen. Oraintsu arte, bakafak abestuteko bildur zirian, oiñ osterakarlaritan baukagu zenbat nai. Baña goizeko seiretako jaupa abestuan Amutxastegi'tar Polikarpa'k abestu euskun «Qui tollis» ez dau edonok abestuten. Ofaitiñok goizeko seiretan, abotsak latz baeguazan, amaferaroko leundu zirian. Azkue'n «Birgiña maite» iru abotsetarako gabon abestija, efi guztiari geyen atsegin izan yakon. Beste iru edo lau bidar abestuko bazendukie, pozago gu. Oin, esan dauskuenez, urte zar gabeko elizkizunerako «Adeste fidelez» ta Bach'en «Tantum ergo», lau abotsetarakuak bijak, ikasten diardue. Aupa mutiak al dozue-ta.

Batzokijan.

«Negafez igaro zan atsua» ta «Ames gozua» antzeztu ebezan. Guztiak ondo baño obeto, baña danon ganetik, ao betian danak diñuen lez, Ugaldebea'tar Miren. Manu Sota'k baleki zelan antzeztuten dozun «Atsuen» atala, laster topauko zendukez. Lafegi diñogula uste dabena, negar malkuak bota ebezanari itandutia baño ez dauko. Zorijonak, danari, adiskide maitiak, zorijonak. Ufengo noiz? Gozez gaukazue.

Donokira

juan jakun, ila bat eukala Bastefetxea'tar Koldobika aingerutxua. Gurasuak aingeru bat daukazue zeruan.

Erijotzia.

Arañegun, gabeko amafak inguruan, il zan Ufesti'tar Eregiña, jostuna. G. B. Sendiari gure semin-egufa.

LILI-EREA

JANTZIAK

gizonentzako Teadoro-
nian egingotzue iñun
beizen ondo eta lauko
asko kendubarik.

TOVALINA Y C.ª L. D.

SOMERA TT
BILBAO

Lenengo oñian
sartukeria dendatik.

Mañari.

Agurtu.

Izandian agurtu gebazan emen, Urkiola'ra osteria eginda etozala, Jemein'dar Keperin eta emazia; Jayo'tar Toma. Aretxabaleta'tar Jon eta Estebez'tar Julen bere emazte ta semetxuagaz. Danok Bilbao'ko aber-tzale zintzuak.

Gabon-jajak.

Jauna'ri eskefak, eleizkixun edefakaz ta abar, ederto igaro doguz. Gabon-mutilak be, bezigu ta makalauak lepotik dingiliz zitubezala, «plantoso» efiratu ziran. Matio ta Agustin gure auzo-mutil dotoriak be, edozeñeri berba egiteko baño afoago sartu ziran eñijan. Tira, tira mutiak...!

Juan-etorijak.

Emen ilabete igarota, larunbatian juan zan Ereño'ra, Ortuoste'tar Miren Jasone, efi ofetatik «Atxostekua» ixen ordiagaz asteroko onetara idazten daben neskatila zintzua.

—Palencia'tik etofi zan Gabon-jajak igaroten «Garafote»ko Befizbeitia'tar Segunda gudari-mutila.

—Izandian agurtu genduzan emen, Beñia'tar Mariñe ta Areitourtena'tar Susane anderañoa.

—Galdakano'tik etofi zan Garmendia inkiñerua, bere emaziagaz.

Eguraldija.

Leyak egiten asi da. Baña, tira, leyak eguzkija auffman ixaten dabela, gatzerdi. Bestela otzetatik ezkeunke urten be egingo.

MANARIKO

Eleiz - jantzi ta urregintza

A. Rui-Wamba

Eleizak jasteko biar dan gustia emen
aurkituko dozue ona ta merke

Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238

BILBAO

Abadiño.

Gabon.

Jaiak guztiok eta batez be umeak oso alai igaroten doguz. Bisigue, in-txaur saltza, tufoi eta abar ugari bafetetan gertau ixango da. Umiak gozo gauzak nonai ikusten dabazan ezkeror, eskutau ezin alako poza darambile.

Menditola'ko.

Bide bafia auferantza doya. Udalak naikoa zeregiñ leporatu dau, baña gotsu diñardue artuko arloa auferantza eroateko. Aurten atxarteraño, ta gero... gero Urkiolaraño. Guztiok lagundu bafian gagoz Udalar, asmu txalogafioak auferantza eroan dagizan. Muntxarastafok be ezku atxufian ipinite daukien ezkeror, Gantzako zubi ertzera bizkor elduko dira. Auffera mutiak bildur bage.